



**SOZIOLINGUISTIKA
KLUSTERRA<**

**KOMUNIKAZIO-KANPAINEN ERAGINA
NEURTZEKO ADIERAZLE – SISTEMA
DEFINITZEA**

2009rako egitasmoa



Proiektuaren Kokapena.....	3
Proiektuaren Helburua	3
Metodologia.....	3
KOMunikazio-Kanpainen Eragina neurtzeko adierazle-Sistema definitzeko Lan-taldearen osaera	6
Urrats nagusiak eta epeak	6



PROIEKTUAREN KOKAPENA

Euskarazko komunikazio-kanpainak ebaluatzeko bitarteko eta jakintza aldetik hutsuneak nabaritu dira; kanpaina horien kalitatea hobetzeko funtsezkoa den informazio ezaren inguruko kezka handia da. Hutsune horiek, sarri, irizpide garbirik gabe aritzea dakar. Gainera, kanpainak garatzeko jarritako baliabide ekonomiko eta pertsonalek zernolako etekinak dituzten jakitea ezinbestekoa da, izan ere, kanpaina horiek hobetzeko tresnak eskuratzeak garrantzia handia duela jakin du Soziolinguistika Klusterrak.

Hainbat bidetatik izan du Klusterrak gabezia horren berri. Alde batetik administrazio publikoan ari diren euskara teknikari hainbatek –udal teknikariak, batez ere-, esparru horretako etekinak neurtu beharrari buruzko kezka erakutsi digute.

Era berean, prospekzio ikerketa soziologikotan ari diren teknikariek ere antzeko kezka helarazi digute.

Azkenik, Soziolinguistika Klusterrak unibertsitate esparruko irakasleekin duen harremana baliatuz, kezka honen inguruan iritzi hartu-emanan izan du hainbat fakultateko irakasleekin (soziologiakoak, psikologiakoak, hizkuntzalaritzakoak). Harreman horren ondorioz agerian geratu da *berariaz euskarazko komunikazio-kanpainen eragina neurtzeko Adierazle-Sistema garatzea* berebiziko garrantzia duela.

PROIEKTUAREN HELBURUA

Arestian esandakoaren hariari jarraiki egitasmo honen helburu nagusia, *Euskara sustatzeko komunikazio-kanpainen eragina neurtzeko ADIERAZLE-SISTEMA definitzea da.*

Helburu nagusi horrek, beraz, bere aplikazio praktikoa du jomuga nagusia. Hau da, euskararen normalkuntzan eragile guztiek eskura izango duten tresna erabilgarria eskaintzea. Nolanahi ere, azpimarratu nahi genuke, helburu hori lortzeko, garapen teorikoan ere aurrerakuntza garrantzizkoa ematea aurreikusi dela. Inguruan eta kontaktuan ditugun hizkuntza nagusietan egin dira jada antzeko ikerketa, baina euskara bezalako hizkuntzaren kasuetarako oraindik asko dago aztertu eta proposatzeko.

Beraz, proiektu honek izango du baita ere *euskarazko komunikazio-kanpainen inguruko garapen teorikoa indartzeko helburua.*

METODOLOGIA

Egitasmoaren helburua lortzeko erabiliko den metodologia ikuspegi praktikoa eta arloko aditu eta eragileen ezagutza teorikoa elkar-banatzean oinarrituko da.

1. Horregatik, gogoetarako, azterketarako eta proposamen zehatzak egiteko **lan-taldea** osatuko da.

Arreta berezia jarriko da **ezagutza teorikoa eta eskarmentu praktikoa** duten adituak elkartzeko. Horien artean izango dira, beraz, unibertsitateko irakasleak (komunikazio, soziologia eta hizkuntzalaritza arlotakoak) eta maila praktikoa aritzen diren lanbide askotariko pertsonak (kazetariak, komunikazio-enpresetako



teknikariak, euskara teknikariak, euskara normalkuntzan lanean ari diren bestelako komunikatzaileak, gizarte alorreko ikerketa soziologikoko enpresak).

2. **Azterketa praktikoak baliatzea.** Jadanik gaiaren inguruan egindako ikerketen berri izan ondoren, emaitzei etekin ahalik eta handiena ateratzeko garrantzizkoa da ezagutza hori konpartitzea. Horretarako, komunikazio-kanpainen inguruko azterketa soziologikoak burutu dituzten enpresen ezagutza eta eskarmentua baliatuko da. Enpresa horietako adituak ere **egitasmoaren lan-taldean** parte hartuko dute. Publizitate-, irudi- eta komunikabideetako profesionalen parte hartzeaz gain unibertsitateko irakasleen iritziak ere jasoko dira.
3. **Komunikazio-kanpainak hobetzeko ikastaroa** eskainiko da euskara teknikariei zuzendua bereziki. Ikastaroa 16 ordukoa izango da lau saiotan banatuta, eta euskarazko komunikazio-kanpainetan adituak diren teknikariek eskainiko dute. Ikastaroaren helburua bikoitza da, alde batetik, jadanik egindako kanpainen ebaluazioa egitea (etorkizunerako ideia lagungarriak eskainiz) eta proiektu honen helburua den **adierazle-sistema** osatzeko datu baliagarriak eskaintzea, bestetik. Horregatik, ikastaroan parte hartuko duten pertsonak ere aukera izango dute **lan-taldean** parte hartzeko. Ikus daitekeenez, beraz, ikuspegi erabat praktikoa garatuko du mintegiak.

Hona hemen ikastaroaren ezaugarri nagusiak:

Ikastaroaren izena

Euskarazko Komunikazio-Kanpainak Hobetzeko Ikastaroa

Ikastaroaren helburua

Euskararen normalkuntza helburu duten komunikazio-kanpainen eragina hobetzeko tresnak eskuratzea. Helburu horrekin, komunikazioan elkarreraginean ari diren elementuak sakon aztertuko dira, eta aldi berean ebaluazioa egiteko gaitasuna eskuratzeko baliabideak eskainiko dira.

Nori zuzendua

Euskara normalizazioan diharduten udal teknikariei zuzenduta dago, hala nola, euskararen ezagutza eta erabilera sustatzeko helburuarekin komunikazio-kanpainak diseinatzen dituzten bestelako eragile sozialei ere.

Aztergaiak

Aipaturiko helburuarekin, beraz, ikastaroan landuko diren gaiak komunikazioan eraginkorrek diren aldagaien ingurukoak dira. Horien artean garrantzi berezia dute honako hauek:

- Komunikazioa burutzeko gailuak, euren berezitasunak, batez ere, euskararenak.
- Funtsezko eta oinarrizko komunikazioa; abiapuntua zein den, zein bitarteko erabiltzea komeni den eta kontuan hartu beharreko bestelako osagarriak ere aztertuko dira.



- Komunikazioa garatzeko produktuak, eta sorkuntza eta irudimenaren garrantzia; aukera desberdinak aztertzea, eraginkorra izatearen beharraz, kostuaren eta onuraren arteko oreka, garestia edo merkea zer den aztertzea.
- Komunikazio tresnak aztertzea. Euskarri mota, teknologia berrien garrantzia: web guneei errentagarritasuna bilatzen, doako erreminten eraginkortasuna neurtu, areagotu eta baliatu.

Egitura eta metodologia

Ikastaroak izaera trinkoa izango du lau orduko lau saiok osatzen baitute, astean behineko maiztasunarekin. Oro har, beraz, hilabetearen buruan amaituko da.

Metodologiaren aldetik, batez ere, praktikaren azterketa –praktikoan-oinarrituko da. Hau da, eduki eta kontzeptu teorikoen azterketek ikastaroaren ehuneko 15a osatuko dute, hainbat kontzeptu teoriko ezinbesteko diren neurrian soilik. Hortik aurrerako edukia ikuspegi praktikoaren bitartez baliatuko da, maila teorikoa ere jorratzeko. Metodologia praktiko hori bi bidetik abiatuko da; alde batetik, jada hasi edo burutu diren kanpainen azterketa eginez, eta bestetik, kanpaina berriak diseinatzeko tresna praktikoak planteatuz.

Beraz, ikastaroaren egitura orokorra honako izango da:

Lehen saioa (4 ordu):

- Komunikazioaren aldagaien azterketa eta haien berezitasuna. Arreta berezia jarriko da euskararen kasuan agertzen diren ahulgune eta indar guneetan.
- Oinarrizko komunikazioan eragiten duten faktoreak.
- *Briefing* kontzeptua eta berori ondo diseinatzearen garrantzia. *Briefing*-a komunikazio-kanpaina oinarritu behar den dokumentuari deitzen zaio publizitate arloan. Bertan, ingurunea, helburua, xedea eta bestelako eragileen definizio zehatza egitea da.
- *Briefing* egoki bat egiteko urratsak, ezinbestekoa baita kanpainak ahalik eta arrakasta handien aizan dezan.

Lehen saio honetako edukiak eta kontzeptu praktikoak barneratzea beharrezkoa da ondoren egingo diren ekienak burutzeko, izan ere horren mende egongo baitira.

Bigarren saioa (4 ordu):

- Komunikazio-kanpainen produktuak sortuko dira. Horretarako sorkuntza maila eta irudimena landuko dira. Aukera desberdinak aztertuko dira eta kasuan kasuko erabakiak hartzeko zerk izan behar lukeen lehentasuna ikusiko.
- Komunikazio-kanpainen kostua eta errentagarritasun kontzeptuak landuko dira adibide errealekin. Itxuraz garestia dena, zergatik da errentagarria? Aldiz, kanpaina merkeek beti merezi dute?



- Eskura dauden baliabideekin kanpaina errentagarrienak diseinatzeko *briefing*-aren garrantzia eredu errealekin ikusiko da.

Hirugarren saioa (4 ordu):

- Komunikazio-kanpainaren aztertutako elementu horiek guztiak erreminta interaktiboetara nola egokitu aztertuko da. Erakundearen edota udaletako webguneak zer-nolako aukerak eskaintzen dituen aztertuko da, doaneko bideek herritarrengan heltzeko modu pertsonalizatuak aztertu.

Laugarren saioa (4 ordu):

Bi lan-saio izango dira:

- Lehen partean: Norberaren esperientzia ikastaroan jasotako tresnekin alderatuko da. Sortu diren zalantzen eta kezken inguruan lan saioa osatuko da mahai-inguru formaturekin. Ikastaroaren ondorioak aterako dira esperientzia praktikoan oinarrituta,
- Bigarren partean: Ondorioak kontuan hartuta etorkizunean garatu daitekeen prestakuntza eta ikerketa-lerroei buruzko planteamendu berria.

Parte-hartzaile kopurua

Euskarazko Komunikazio-Kanpainak Hobetzeko Ikastaroaren izaera praktikoak baldintzatzen du ikasle kopurua. Ikastaro bakoitzean gehienez 20 laguneko lan-taldeak eratuko dira.

4. Egitasmoa aurrera eramateko proiektuak **zuzendaria** izango du, komunikazioan eta euskal soziolinguistika arloan aditua izango dena, hain zuzen.
5. Soziolinguistika Klusterrak egitasmoaren **idazkaritzaren** eta **koordinazio orokorraren** ardura izango du.

KOMUNIKAZIO-KANPAINEN ERAGINA NEURTZEKO ADIERAZLE-SISTEMA DEFINITZEKO LAN-TALDEAREN OSAERA

Lan-taldea osatuko dute, esan bezala, unibertsitateko irakasleak, bai soziologia- zein informazio-zientzietakoak. Gainera, bestelako maila aplikatuko profesionalek ere parte hartuko dute (kazetariak, publizitate-arlokoak eta abar) eta hainbat teknikari.

Lan-taldeak zuzendari funtzioak beteko dituen aditu bat izango du eta koordinazio-lanak Klusterreko teknikariak burutuko ditu. Guztira, hamar pertsonak osatuko dutela lan-talde hori aurreikusi da.

URRATS NAGUSIAK ETA EPEAK

Proiektuaren garapena, bost urrats-nagusitan banatuta azal liteke:



1. URRATSA: Eskuragarri dagoen informazioa biltzea eta oinarritzko azterketa burutzea.

2. URRATSA: Komunikazioan adituak diren teknikariek prestatu eta gidatutako mintegia antolatu euskara teknikarientzat bereziki. Mintegiaren izenburua honakoa izango da: *Euskarazko komunikazio-kanpainak hobetzeko ikastaroa.*

2. URRATSA: Lan-taldea osatzea

Arestian azaldutako mintegia antolatzen eta burutzen den aldi berean, egitasmo orokorrean parte hartuko duen lan-taldea osatuko da.

Lan-taldean parte hartuko dute, besteak beste:

Euskal Komunikazioan aditua den eta eskarmentu handiko pertsona bat zuzendari lanetan,

Ezagutza teorikoa gehienbat lantzen duten bi unibertsitateko irakasle,

Ikerketa aplikatuan parte hartu eta eskarmentu handia duten bi profesional,

Administrazio publikoko bi euskara teknikari,

Euskararen normalkuntzan lanean ari diren giza erakundeetako bi kide,

Soziolinguistika klusterreko kide bat koordinazio lanetan.

3. URRATSA: Eztabaida eta proposamena

Behin datuak bilduta eta lan-taldea osatzen denean azterketa konpartitua egingo da lau saioko prozesuan:

Informazioa eta hipotesiak

Hipotesien kontrastea

Lehen proposamena eta balidazioa

Proposamena, balidazioa, zuzenketa, azken proposamena

4. URRATSA: Aurkezpena

Komunikazio-kanpainen eragina neurtzeko adierazle-sistemaren proposamena urte amaieran aurkeztea aurreikusten da.

Orijinaltasuna eta Kalitatea

Soziolinguistika Klusterrak hainbat bidetatik jaso du komunikazio-kanpainen inguruan ezagutza-erari buruzko kezka. Bide horiek honakoak dira besteak beste:

- a. Komunikazio-kanpainak prestatu eta burutzen dituzten teknikariak
- b. Komunikazio-kanpaina horiek ordaintzen dituztenak, izan baliabide publikokoak zein pribatukoak
- c. Komunikazio-kanpainen eragina aztertzen duten enpresak
- d. Komunikazio-kanpainen inguruko ezagutza teorikoaz arduratzen diren adituak

Beraz, **egitasmo honen bitartez lortuko dena**, euskararen normalkuntzan lanean ari diren giza eragile eta teknikariek euren kanpainetarako tresna erabilgarria izango da, euskararen normalkuntzan jartzen diren baliabideetatik ahalik eta etekin handiena lortzeko.

SOZIOLINGUISTIKA KLUSTERRA